

# KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2023ko otsaila

## Aurkibidea

1. EAEko hazkundera
2. Lan merkatua
3. Inflazioa
4. Enpresarien konfiantza
5. Inguruneko hazkundera
6. PMI konposatua

Eranskina

### 1. EAEko ekonomia %4,3 hazi zen 2022an.

Lanaldi osoko lanpostuen kopurua milioi bat izatera hurbildu da.

### 2. Okupazio tasak bere horretan jarraitu du, ia ezer aldatu gabe.

Emakumeen eta gizonen tasen arteko arrakala puntu erdi bat murriztu zen laugarren hiruhilekoan.

### 3. Inflazioa %5,4ra apaldu zen urte amaieran.

Produktu energetikoen merkatzeak azaltzen du indize orokorraren bilakaera positiboa.

### 4. EAEko enpresen konfiantza nabarmen hobetu da.

2023ko lehen hiruhilekoko indizeak zazpi puntutan gaitzen du 2022ko laugarren hiruhilekokoan.

### 5. Munduko ekonomiak gerrari eta inflazio handiari aurre egin die.

Lehen kalkuluen arabera, munduko BPGaren hazkundera %3,1 izan da.

### 6. Sei hilabete geroago, euroaren eremuko PMI konposatua 50 puntutik gorakoa da.

Enpresen konfiantzak eta enpleguaren hazkundera hobera egin dute urtarrilean.




# EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

## EAEko ekonomia %4,3 hazi zen 2022an

### BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Urte arteko aldakuntza tasa

4. HIRUHILEKOA  
**%2,8**



Eustaten kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko ekonomia %2,8 hazi zen 2022ko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berearekin alderatuta. Ukrainako gerrak, energiaren merkatuetako tentsioek, inflazio handiak eta, azkenik, eremu ekonomiko garatu nagusietako diru politikaren norabide aldaketak Euskadiren hazkundera moteldu dute urtean zehar. Hala ere, hiruhileko bakoitzean lortutako hazkunde tasak garrantzitsua izaten jarraitu zuen.

Aipamen berezia merezi du hiruhileko arteko


bilakaera; izan ere, azken hiruhilekoko gehikuntza tasa (%0,4) hirugarrenekoa baino hobea izan da, eta horrek baztertu egiten du atzeraldi teknikoan murgiltzeko aukera.

Urteko batez bestekoan, EAEko ekonomia %4,3 hazi zen 2022an, eta tasa hori bat dator Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenarekin. Eustatek aurreratutako datuen arabera, ekonomiaren sektore guztiak hazi ziren, baina 2021ean baino erritmo motelagoan, urte horretan BPGa %5,9 igo baitzen.

### BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa


4. HIRUHILEKOA  
**%0,4**



## ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa

4. HIRUHILEKOA  
**%1,9**




Lan merkatuari dagokionez, iazko laugarren hiruhilekoan enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, urte arteko %1,9 hazi zen, aurreko hiruhilekoan kontabilizatutakoaren antzeko tasa baita. Hiruhilekoen arteko terminoetan, zenbatetsitako igoera %0,1ekoa izan zen. Aldaketa horien guztien ondorioz, urte osorako lehen zenbatespenak erakusten du enplegua, batez beste, %3,1 hazi zela 2022an, hau da, 30.000 lanpostu inguru sortu zirela urtebetean, Eusko Jaurlaritzak kalkulaturako 26.000 lanpostuak baino zertxobait gehiago.

Era berean, igoera horrek EAEko ekonomiaren lanpostuen kopurua milioira hurbiltzen du, eta maila hori 2007. urtearen amaieran eta 2008. urtearen hasieran baino ez da gainditu. Urte arteko eta hiruhileko arteko datuek beheranzko joera argia erakusten duten arren, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarteratze sailburuorde Alfonso Gurpegik iragarri zuen EAEko ehu-nak eutsi ahal izango diola 2023. urte honetan, nahiz eta gaur egungo ziurgabetasuna handia izan, eta enpleguak egungo bilakaera positiboari jarraipena emango diola.

## ENPLEGUA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

4. HIRUHILEKOA  
**%0,1**



Iturria: Eustat.

## Okupazio tasak bere horretan jarraitu du, ia ezer aldatu gabe


ENPLEGU TASA. 16-64 URTE

BITARTEKOA.

Ehunekoak

4. HIRUHILEKOA

**%69,8**




BJAk 2022ko laugarren hiruhilekorako zenbatetsitako datuek iradokitzen dute dezelerazio txiki bat gertatu dela azken hilabeteetan; izan ere, hiruhileko horretan okupatutako pertsonen kopurua 967.200tik 962.600era jaitsi zen, eta, beraz, 16 eta 64 urte bitarteko enplegu tasa hamarren bat murriztu zen. Nolanahi ere, urtearen balantzea, Ukrainako gerrak eta inflazio handiak eragindako ondorioak gorabehera, oso

nabarmena da, landunen kopurua %2,4 hazi baita. Generoaren araberako analisiak, era berean, baieztatzen du emakumeen enplegu tasak gizonena baino txikiagoa izaten jarraitzen duen arren, generoen arteko arrakala puntu erdi bat murriztu dela. Zehazki, azken horien tasa %73,3tik %72,9ra jaitsi zen, baina emakumeena %66,7ra iritsi zen, azken urteetako erregistrorik handiena baita.

ENPLEGU TASA 16-64 BITARTEKOA.

EMAKUMEA


Ehunekoak



ENPLEGU TASA 16-64 BITARTEKOA.

GIZONAK


Ehunekoak



Langabezia tasari dagokionez, laugarren hiruhilekoan bost hamarren igo zen, hirugarren hiruhilekoko %7,9tik oraingo % 8,4ra, alegia. Langabeziaren gorakada nabarmenagoa izan zen emakumeen artean, haien langabezia tasa zortzi hamarren hazi baitzen, %9,1eko erregistroa ezarrita; gizonen langabezia tasa, berriz, neurritsuago hazi zen, %7,8an kokatu baitzen. Hala eta guztiz ere, 2022. urte osoko tasa 2021ekoaren aldean 1,5 puntu murriztu zen, 2021eko %10,0tik 2022ko %8,5era.


## LANGABEZIA TASA. GUZTIRA

Ehunekoak




## LANGABEZIA TASA. EMAKUMEAK

Ehunekoak




## LANGABEZIA TASA. GIZONAK

Ehunekoak




## LANGABEZIA TASA. ESPAINIARRAK

Ehunekoak



## LANGABEZIA TASA. ATZERRITARRAK

Ehunekoak




Iturria: Eustat.

# INFLAZIOA

## Inflazioa % 5,4ra apaldu zen urte amaieran

### KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Abenduan, inflazioa 1,1 puntu murriztu zen azaroko datuarekin alderatuta, eta urte arteko tasa %5,4an geratu zen. Horrela, berretsi egin da abuztuan hasitako beheranzko dinamika, eta, beraz, KPI nabarmen apaldu zen urtearen azken herenean, urteko unerik txarrenetan erregistratutako inflazioaren maximoetatik aldenuz, hileko horretako tasa %10,5ean kokatu baitzen.


### KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2020	2021	2022ko abendua	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	3,1	8,1	5,4	5,4
Azpiko inflazioa (%79,5)	1,0	5,1	6,7	5,3
- Elikagai landuak (%15,8)	1,4	10,2	16,2	2,6
- Industria ondasunak (%22,7)	1,0	4,7	5,7	1,3
- Zerbitzuak (%41,0)	0,7	3,3	3,5	1,4
Hondar inflazioa (%20,5)	12,1	20,0	0,3	0,1
- Landu gabeko janariak (%9,3)	2,6	10,8	10,8	1,0
- Energia (%11,2)	21,3	28,2	-8,4	-0,9


### AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



### HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




## BRENT PETROLIO UPELAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Dolarrak upeleko



## GASAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Euro MWh-ko



Inflazioak iazko bigarren erdian erakutsi zuen moteltzeko joera azaltzen duten arrazoiak, batez ere, berokuntzarako erregaien eta gasolioaren prezioaren bilakaeran daude, eta elektrizitatea aurreko urtean baino gutxiago garestitu izana. Hala ere, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak %15,1 garestitu dira, inflazio orokorra baino ia hiru aldiz gehiago, eta arazo horrek behartu zuen Espainiako Gobernuak, 2023ko urtarurilaren 1etik, produktu jakin batzuetan BEZa kentzera eta beste batzuetan murriztera. Au-

rreikuspenen arabera, hartu dituen neurri horiek hilabete batzuk barru izango dute eragina. Era berean, azpiko inflazioak, landutako elikagaien prezio altuek bultzatuta, gora egiten jarraitu zuen, energiaren prezioen pixkanakako apaltzea ez baita oraindik gainerako produktuetara aldatu. Zehazkiago adierazita, azpiko inflazioa %6,7 hazi zen, hau da, inflazio orokorra baino 1,3 puntu gehiago, eta datuak argitaratzen direnetik izan den mailarik altuenean dago.

## KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa

	Euskadi Abendua	Espainia abendua	Euskadi Urteko batez bestea	Espainia Urteko batez bestea
<b>INDIZE OROKORRA</b>	<b>5,4</b>	<b>5,7</b>	<b>8,1</b>	<b>8,4</b>
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	15,1	15,7	11,2	11,6
Edari alkoholdunak eta tabakoa	6,9	7,2	4,3	3,9
Jantziak eta oinetakoak	1,9	1,8	2,9	2,8
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-5,3	-4,5	16,5	16,1
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	8,6	8,5	6,6	6,3
Osasuna	0,8	1,0	0,6	1,1
Garraioa	3,0	3,3	11,2	12,2
Komunikazioak	-1,8	-1,9	-1,2	-1,3
Aisia eta kultura	4,3	3,8	3,2	2,8
Hezkuntza	1,9	1,4	1,6	1,2
Jatetxeak eta hotelak	6,3	7,8	5,9	6,4
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	4,6	4,5	3,8	3,5

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.



# ENPRESARIEN KONFIANTZA


## EAEko enpresen konfiantza nabarmen hobetuta

INEk 2023ko lehen hiruhilekoari dagokion enpresa konfiantzaren indize harmonizatua argitaratu berri du. Adierazle horren arabera, EAEko enpresek konfiantza nabarmen hobetu dute, zazpi puntu igo baita 2022ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Gaur egungo maila 2019an, pandemia hasi aurretiko garaian, izandakoaren oso antzekoa da.


Adierazlearen bi osagaiak aurreko hiruhilekoko baino zifra askoz altuagoak izan zituzten. Alde batetik, aurreko hiruhilekoaz egindako balorazioa azken hiru urteetako positiboena izan zen, hamabi puntuko hobekuntzarekin laugarren hiruhilekoaren aldean. Bestetik, oraingo hiruhilekoari buruzko igurikimenak bederatzi puntu baino gehiago igo ziren.

### ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZE HARMONIZATUA. EUSKADI


1. HIRUHILEKOA  
**132,8**



### AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA




### HASI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA





## ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZE HARMONIZATUA. ESPAINIA


1. HIRUHILEKOA  
**129,0**




EAEko enpresek lortutako emaitza Estatu osorako erregistratutakoaren gainetik kokatu da; izan ere, azken horrek bi puntu egin du hobera laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, baina oraindik ez ditu 2019ko balioak berreskuratu. Kasu horretan, amaitu berri den hiruhilekoaz egiten den balorazioa ere positiboa da, nahiz eta hobekuntza hiru puntu pasatxora mugatzen den. Ha-

laber, egungo hiruhilekoari buruz dauden igurikimenak ezkorrak dira oraindik, aurreko datuarekin alderatuta bi puntuko hobekuntza jaso den arren. Autonomia erkidegoka aztertuta, indizerik altuenak Kantabriako 138,5 puntuei eta Gaztela-Mantxako 137,1 puntuei dagozkie, eta horien atzetik Euskadi dago, lehenago aipatu diren 132,8 puntu horiekin.

## AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



## HASI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



Iturria: INE.




# INGURUNeko HAZKUNDEA

## Munduko ekonomiak gerrari eta inflazio handiari aurre egin die

### TXINAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

TXINAKO BPGA 2022  
**%3,0**




Pandemia gaindituta zegoela eta normaltasuna itzultzen ari zela uste zenean, 2022k eraso egin zuen gertakari berriekin. Errusiak Ukraina inbaditu zuen eta gatazkak aurrekaririk gabeko krisi energetikoa ekarri zuen. Gertakari horrek, era berean, berez handia zen inflazioa gorarazi zuen maila gorenetaraino, eta azkenean diru politika ultra-laxoaren aro baten amaiera behartu zuen. Eragina herrialde guztietan nabaritu zen, erosteko ahalmena murriztu baitzitzaizen, eta horrekin batera kontsumoa eta inbertsioa. Hala ere, munduko ekonomiak berriro erakutsi zuen erresilientzia, eta lehen zenbatespenek BPGaren %3,1eko hazkuntzea jasotzen dute.

Txinaren kasuan, horri guztiari zero covid politikaren ondoriozko murrizketa handiak eta konfinamendu zorrotzak gehitu behar izan zitzaizkion, hazkunde erritmoa %3,0raino moteldu baitzuten. AEBek, bere aldetik, hazkunde sendoa eskuratu zuten Ukrainako gerraren, 40 urtean bizi den inflaziorik handienaren eta 1980ko hamarkadaren hasieratik ezarri den moneta politika gogortu izanaren urtean. Zehazkiago adierazita, ekonomia estatubatuarra %2,1 hazi zen, analisten aurreikuspenen gainetik, eta langabezia tasa %3,5ean finkatu zuen, azken mende erdiko minimoa berdintzen duen erregistroa baita.

### AEBETAKO BPGAREN HAZKUNDEA


Urte arteko aldakuntza tasa

AEBETAKO BPGA 2022  
**%2,1**




## EBKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa



## EUROGUNEKO BPGAREN HAZKUNDEA


Urte arteko aldakuntza tasa



Europar Batasunak ere balantze positibo garrantzitsu batekin amaitu zuen 2022. urtea. Zehazki, %3,5 hazi zen, hau da, batez besteko historikoaren gainetik. Eremuko herrialde guztiek, urteko zenbaketan, gerra eta inflazio handia saihestu zituzten, nahiz eta hiruhileko arteko bilakaerak moteltzeko joera handia eta baita uzkurdura ere erakusten duen herrialde kide batean baino gehiagotan. Datuak ditugun hamabi herrialdeetatik erdietan, Alemania eta Italia barne, jarduera ekonomiko murriztu egin zen hiruhileko arteko tasetan. Halaber, aurreikuspen batzuek 2023ko lehen hiruhilekoa ere negatiboa izango dela aurreratzen dute, eta horrek atzeraldi tekniko batera hurbiltzen ditu.


## ESPAINIAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa




## FRANTZIAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa



## ALEMANIAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGA; BEA, Eurostat eta INE.



# PMI KONPOSATUA

## Sei hilabete geroago, euroaren eremuko PMI konposatua 50 puntutik gorakoa da


Sei hilabetez jarraian behera egin ondoren, 2023. urtearen hasierak euroaren eremuko ekonomia hedapenera itzultzea ekarri du, urtarrileko PMIaren arabera (50,2), abenduko datuarekin alderatuta (49,3) ia puntu bat igo baita. Hobe-kuntza ekonomiaren bi sektore nagusietan gauzatu da. Alde batetik, manifakturen indizea 49,0 punturaino igo da, oraindik uzkurdura eremuan, baina aurreko zazpi hilabeteetan baino

posizio hobean. Bestetik, zerbitzuek ia puntu bat egin dute hobera, eta 50,7 balioan kokatu dira, hau da, sei hilabeteetan izan duten maila altuenean.


Komunikatuak nabarmentzen du enpresen konfiantza biziki igo zela eta enpleguaren hazkunderak indarra hartu duela. Bestalde, salmentak batez besteko prezioen inflazioak gora egiten jarraitu zuen.

### PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2023KO URTARRILA  
**50,2**




### MANIFAKTUREN PMI. EUROGUNEA




### ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



## PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




## PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Herraldeka, Alemaniak azken hilabeteetan izan duen susperraldia garrantzitsua da, eta pasa den uztailetik oraingoa (49,7) da maila gorena, hedapen eremutik gertu. Frantziak, berriz, okerrera egin zuen apur bat, eta 49,0 puntutan dago. Eurogunearen gainerako eremua, oro har, hazkundera itzuli zen, zerbitzuen intentsitate handiagoak eta manufakturen egonkortzeak bultzatuta.

Eurogunetik kanpo, Erresuma Batuko datuak okerrera egin du, puntu bat baino gehiago jaitsi baita, 47,8ra arte, eta AEBetan hobera egin du (46,6), baina hobekuntza hori ez da nahikoa izan bertako ekonomia hedapen eremura itzultzeko.


## PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



## PMI KONPOSATUA. AEB



## PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit

# ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2021		2022		
			IV	I	II	III	IV
<b>BPG</b>	<b>5,9</b>	<b>4,3</b>	<b>4,9</b>	<b>5,8</b>	<b>5,0</b>	<b>3,8</b>	<b>2,8</b>
Barneko azken kontsumoa	5,2	—	3,8	2,6	1,5	1,7	—
Familien kontsumoa	5,6	—	4,0	3,2	3,0	2,4	—
Administrazioaren kontsumoa	3,9	—	3,3	0,6	-3,1	-0,7	—
Kapital eraketa gordina	6,0	—	3,0	4,9	5,0	4,9	—
Barne eskaria	5,4	—	3,6	3,2	2,4	2,4	—
Esportazioak	12,7	—	13,5	13,5	13,7	9,2	—
Inportazioak	11,6	—	9,3	10,4	8,5	5,6	—
Lehen arloa	21,9	—	14,5	-1,7	-3,2	8,0	—
Industria eta energia	6,1	—	3,7	6,5	6,1	3,8	—
Eraikuntza	4,5	—	2,5	1,9	1,5	2,5	—
Zerbitzuak	5,8	—	5,5	6,2	5,6	4,3	—
Balio erantsi gordina	5,9	—	5,0	6,0	5,4	4,1	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,1	—	4,1	3,9	3,2	2,8	—
Enplegua	5,9	3,1	5,0	4,9	3,7	2,0	1,9

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2022		2023				2023
	IV	2022	I	II	III	IV	
<b>BPG</b>	<b>2,4</b>	<b>4,3</b>	<b>2,2</b>	<b>1,7</b>	<b>1,7</b>	<b>2,8</b>	<b>2,1</b>
Barneko azken kontsumoa	1,2	1,8	1,3	1,3	1,3	1,7	1,5
Familien kontsumoa	2,0	2,7	1,3	1,1	1,2	1,7	1,4
Administrazioaren kontsumoa	-1,5	-1,4	1,4	1,9	1,8	1,5	1,7
Kapital eraketa gordina	4,3	4,8	3,3	2,4	2,5	3,3	2,9
Barne eskariaren ekarpena	2,0	2,5	1,8	1,6	1,6	2,1	1,8
Kanpo eskariaren ekarpena	0,4	1,8	0,3	0,1	0,1	0,7	0,3
Lehen arloa	-7,3	-4,6	-0,2	-11,3	-4,5	-2,0	-4,7
Industria	2,9	5,2	1,4	0,3	-0,3	-0,5	0,2
Eraikuntza	1,8	1,7	1,6	2,9	3,3	3,1	2,7
Zerbitzuak	2,8	4,7	2,9	2,7	3,0	2,9	2,9
Balio erantsi gordina	2,7	4,6	2,4	2,0	2,2	2,1	2,2
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,6	2,8	1,9	1,7	1,6	1,4	1,6
Lanaldi osoko lanpostuak	1,0	2,7	1,0	1,0	1,0	1,8	1,2
Landunak (BJA)	1,4	2,0	0,7	0,9	0,8	1,1	0,9

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024		2023	2024
Hispalink (BPGaren aldakuntza)	1,6	2,0	BBVA	0,8	3,4
Confebask	1,5	—	Ceprede	0,7	1,8
Laboral kutxa	1,3	—			

# ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

## TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2021		2022		
			IV	I	II	III	IV
<b>BPG</b>	<b>5,5</b>	<b>5,5</b>	<b>6,6</b>	<b>6,9</b>	<b>7,8</b>	<b>4,8</b>	<b>2,7</b>
Kontsumo pribatua	6,0	4,4	4,6	5,0	5,1	4,8	2,6
Kontsumo publikoa	2,9	-0,9	-0,1	-1,1	-2,8	-1,8	1,9
Kapital finkoaren eraketa gordina	0,9	4,3	-1,7	3,6	5,7	5,9	2,0
- Aktibo finko materialak	0,1	4,1	-3,4	2,9	5,5	5,8	2,2
- Eraikuntzan	-3,7	4,2	-3,9	0,3	6,1	6,4	4,1
- Ekipamendu ondasunetan	6,3	3,8	-3,3	6,9	4,4	4,9	-0,9
- Jabetza intelektualaren produktuak	4,7	5,0	6,3	6,8	6,4	6,2	0,9
Nazio eskaria (ekarpena)	5,2	2,8	4,9	4,8	3,6	2,6	0,6
Esportazioak	14,4	14,9	16,4	17,7	20,7	14,7	7,6
Inportazioak	13,9	7,7	11,6	12,1	8,3	8,7	2,2

## BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023		2022	2023
AFI	5,4	1,3	Mapfre Economics	4,6	1,0
BBVA	5,3	1,4	Oxford Economics	5,3	1,1
CaixaBank	4,5	1,0	Repsol	5,2	1,3
Merkataritza ganbera	4,8	1,9	Santander	5,3	1,0
CEEM-URJC	4,6	1,2	Metyis	5,2	1,1
CEPREDE-UAM	4,5	1,5	Universidad Loyola Andalucía	4,5	1,0
CEOE	5,2	0,8	<b>Batez bestekoa</b>	<b>5,0</b>	<b>1,3</b>
Equipo Económico (Ee)	5,2	2,1	Gobernua (2022-10)	4,4	2,1
EthiFinance Ratings	4,6	1,1	Espainiako Bankua (2022-12)	4,5	1,4
FUNCAS	5,2	1,0	Europar Batzordea (2022-11)	4,5	1,0
ICAE-UCM	5,2	1,8	NDF (2022-10)	4,3	1,2
IEE	5,3	1,2	ELGA (2022-11)	4,7	1,3
Intermoney	4,3	1,4	Consensus Forecast (2023-01)	4,5	0,9

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako Bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Merkataritza ganbera, CEEM-URJC, Equipo Económico (Ee), EthiFinance Ratings, ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Oxford Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía eta Metyis.

# ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

## BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2021		2022		
			IV	I	II	III	IV
AEB	5,9	2,1	5,7	3,7	1,8	1,9	1,0
Txina	8,1	3,0	4,0	4,8	0,4	3,9	2,9
Japonia	1,7	—	0,9	0,6	1,4	1,7	—
Kanada	5,0	—	3,9	3,2	4,7	3,9	—
Europar Batasuna	5,4	3,6	5,1	5,6	4,4	2,5	1,8
Eurogunea	5,3	3,5	4,8	5,5	4,3	2,3	1,9
Alemania	2,6	1,9	1,2	3,5	1,7	1,4	1,1
Frantzia	6,8	2,6	5,1	4,8	4,2	1,0	0,5
Erresuma Batua	7,6	—	8,9	10,7	4,0	1,9	—
Italia	6,7	4,0	6,5	6,4	5,0	2,7	1,7
Herbehereak	4,9	—	6,2	6,5	5,2	3,1	—

Iturria: Eurostat eta ELGE.

## CONSENSUS FORECAST. 2023KO URTARRILA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2023	2024	2023	2024	2023	2024
AEB	0,3	1,1	3,8	2,5	4,3	4,7
Japonia	1,2	1,1	1,9	1,2	2,5	2,4
Kanada	0,4	1,6	3,7	2,2	6,0	6,2
Europar Batasuna	0,2	1,6	6,4	2,6	—	—
Eurogunea	0,0	1,2	5,9	4,2	7,1	7,1
Alemania	-0,5	1,4	6,4	2,9	5,6	5,4
Frantzia	0,2	1,2	4,8	2,2	7,6	7,6
Erresuma Batua	-1,0	0,6	7,2	3,1	4,4	5,0
Italia	0,0	1,1	6,6	2,2	8,3	8,3
Espania	0,9	2,0	4,2	2,6	—	—
Herbehereak	0,2	1,3	6,4	3,2	—	—

Iturria: Consensus Forecast.